

LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILBURUAREN AGINDU PROIEKTUA, LANGILEEK, 2009KO EKAINAREN 7KO EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTU ETA DAGOZKIEN ORDAINSARIAK JASO DITZATEN ARAUAK EMATEN DITUENARI BURUZ

Aurrekariak:

2009ko apirilaren 28an, Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritzaren bitartez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak agindu proiektu bat helarazi du Lan Harremanen Kontseilu honetara, langileek 2009ko ekainaren 7ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten arauak ematen dituenara.

Agindu proiektuaren testua Lan Harremanen Kontseiluko Txosten Batzordeko kideei helarazi zaie.

Agindu proiektuaren testuari buruzko iritziak

Txostenaren gaia dugun Agindu proiektuaren testuak errepikatu egiten du, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, helburu berberarekin lehenago emandako beste arau batzuen edukia.

Honen aurreko proiektuen harira ere Lan Harremanen Kontseiluak eman izan ditu kasuan kasuko txostenak, eta bertan, sindikatu eta enpresaburu erakundeek izendatutako Txosten Batzordeko kideen iritziak jasotzen ziren.

Ikusirik gaur egungo arauaren testuaren eta haren aurretik izan zirenen arteko berdintasuna, LHKko Txosten Batzordeak, gai honen inguruan txosten horietan esaten zuena errepikatu nahi du oraingoan ere.

Horrenbestez, jarraian ematen dugun txostena onartu da:

Txostena

Kontseiluko kideek beren adostasuna adierazten dute, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Agindu proiektuaren testuarekin, alegia, langileek 2009ko ekainaren 7ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten arauak ematen dituenarekin, honako puntu honetan izan ezik: Confebask enpresaburuen erakundeak izendatutako kideen iritzian, ordaindutako baimena bakarrik aitortu behar litzaieke langileei beren lan jarduna eta hauteskunde kolegioen irekitze ordutegia lau ordu edo gehiagotan bat datozenean.

Bilbo, bi mila eta bederatziko maiatzaren seian.